

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -
20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus

OSASUN ITURRIAREN KALEAN EGIN BEHARREKO LANEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2017ko urriaren 16an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko maiatzaren 18an Osasun Iturriaren kaleko 16.eko bizilagunek idatzi bat aurkeztu zuten Udalinfo zerbitzuan. Bertan adierazten zuten, argazki sorta baten bidez, beraien etxea harrizko horma baten kontra eraikita zegoela eta horrek hainbat arazo sorrarazten zituela.

Alde batetik, etxeko patioan segurtasun arazo larriak zituzten, hormatik harriak eta enbor zatiak erortzen zirelako, eta, bestetik, hormaren gainean zeuden beste etxebizitzetan (Amarako Gaina kalekoak) arrailak ateratzen hasi zirela antzeman zuten.

Bizilagunek aurkeztu zuten txostenean laguntza eskatzen zioten Udalari, hormaren konponketa zeini zegokion argitzeko eta beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartzeko.

2016ko ekaineko batzordeetan galdera bat luzatu genion Hirigintzako zinegotziari gai honen inguruan eta hark erantzun zigun *ez zuela bizilagunen eskaera ezagutzen, baina aste horretan bertan (asteazkenean) joango zela egoera zein zen ikustera bere departamentuko zuzendariarekin batera.*

Hiru hilabeteren ondoren bizilagunek zinegotzi ordezkariaren edo teknikariaren berririk izan gabe jarraitzen zuten, 2016ko iraileko udalbatzarrean honako kontrol mozio hau aurkeztu zuen talde honek:

- Udaltzarak eskatzen dio Udal Gobernuari hiritarrek aurkezten dituzten eskaerei erantzuna ematea; batez ere eskaera horiek pertsonen segurtasunarekin lotuta daudenean.
- Udaltzarak eskatzen dio Udal Gobernuari zehaztu dezala zein neurri hartuko dituen Udalak harrizko hormaren egoera hobetzeko, Osasun Iturriaren kaleko bizilagunek beraien patioak erabiltzerakoan arriskurik izan ez dezaten.

Mozio hau aho batez onartu zen, eta 2017ko otsailean prentsa idatzian publikatu zen kaleko horma konponduko zela eta, horretarako, 100.612 euro bideratuko zirela. Martxoan bizilagunak delegatuarekin harremanetan jarri ziren obraren berri izateko eta prentsan irakurritakoa kontrastatzeko, baina orain arte ez dute delegatuaren erantzunik jaso eta, urtebeteko epean, konponketak ez direla egin adierazi digute.

